

2013-2017



ELHUYAR  
aholkularitza



# [EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA, MARKINA-XEMEIN (2013-2017)]

Plan hau Markina-Xemeingo Udalak Elhuyar Aholkularitzari egindako eskaeraren emaitza da, Markina-Xemeinen Euskararen Plan Estrategikoa (2013-2017) herritarrekin batera landu eta diseinatzeko proiektuaren emaitza, hain zuzen. Parte hartzeko prozesu baten ondorioz bildutako emaitzak ditu oinarri honako txosten honek.



### SARRERA

#### Planaren diseinua

Plan hau Markina-Xemeingo Udalak Elhuyar Aholkularitzari egindako eskaeraren emaitza da, Euskararen Plan Estrategikoa (2013-2017) herritarrekin landu eta diseinatzeko eskaeraren emaitza, hain zuzen ere. Horrela, herritarrekin batera landutako diagnostikoan jasotakoei erantzun nahi die plan honek.

#### Markoa

Eusko Legebiltzarrak 1999. urtean onartutako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren oinarrituta dago plan hau, eta Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak plan hori toki entitateetara egokitzeko egindako markoaren baitan. Nolanahi ere, 2009an Euskara 21 gogoeta prozesuaren emaitzetatik Euskararen Aholku Batzordeak 2012an onartutako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean (ESEP) jasotako zenbait kontzeptu eta helburu ere jaso nahi izan dira. Hain zuzen ere, helburu estrategikoen banaketa berritu da, eta ekintza-neurrien proposamenei egokitzapenak egin zaizkie, eta zehar-lerroen lanketa proposatzen da. Hain zuzen ere zehar-lerroetan gainerako esparruak elikatzeko bestelako jarduerak biltzen dira, hizkuntza plangintza integral batek kontuak izan behar dituenak.

Guztira, sei lan-esparru jasotzen ditu plan honek. EBPNk jasotzen dituen 10 esparruak eta ESEPeke proposatutakoak gogoan hartuta, baina Markina-Xemeingo egoerara egokitutako banaketa proposatzen dugu.

#### Indarraldia

Plan honen indarraldia 5 urtekoa izango da, 2013tik 2017ra, biak barne. Hain zuzen ere, indarraldia bat dator administrazioko Erabilera Planak bete beharreko V. plangintza-aldiko epeekin.

#### Diagnostikoa

Diagnostikoa IRATI aplikazioan jasotako galdetegiari erantzuten dio, eta bi datu mota jasotzen du: datu kuantitatiboak eta datu kualitatiboak. Datu kuantitatiboak iturri ofizialetatik jasotako datuak dira; datu kualitatiboak, aldiz, herritarrekin eta herriko zenbait eragilerekin batera landurako saioen bidez jaso dira.

Plan honetan jasotako diagnostikoa eta diseinua egiteko prozesuaren berri aparteko txosten batean jaso da.



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

### Garrantzia

Helburuen garrantzi-maila bost koloreen bitartez adierazi da. Helburuen garrantzia Euskara Batzordeak erabaki du ohiko bileran.

txikia

ertaina

handia



### Irati aplikazioa

Hemen jasotako dena Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak prestatutako IRATI aplikaziora moldatu da eta bertan txertatuta dago, dagokion jarraipen-eta adierazle-sistema uztarturik duelarik.



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Heburu nagusia (EBPN)				
Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikarako neurriak erabakitzea eta bultzatzea da.				
Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoaren helburua, 2013-2017 epealdirako				
Markina-Xemeingo herritarrak euskararen egoeraz kontzientziatzea eta aktibatzea, prestigioan eraginez.				
Helburu estrategikoak (ESEP)	Esparruak (ESEP) <sup>1</sup>	Esparruak <sup>2</sup> (EBPN)	Esparruak: Markina-Xemein	Zehar-lerroak
<i>Euskararen jabekuntza</i>	1. Familia bidezko transmisioa	1. Familia transmisioa	1. Familia eta eskola: haurren transmisioa	<b>Barruko proiektzioa</b> Gure balioa indartzea: arnasmunea  Euskararen prestigioa eta erabilera  <b>Sentsibilizazioa eta motibazioa</b>  Euskaltzaleen antolaketa sustatzea eta sarea eratzea
	3. Euskalduntze-alfabetatzea	2. Euskalduntzea-prestakuntza	2. Gazteak eta euskara	
	2. Irakaskuntza	3. Irakaskuntza	3. Etorkinak eta helduen euskalduntzea	
<i>Euskararen erabilera</i>	6. Arlo sozio-ekonomikoa	5. Lan mundua	3. Merkataritza, ostalaritza, zerbitzugintza.	
	7. Aisia eta kirola	6. Aisia 7. Kirola	4. Kulturgintza: kirol eta kultur elkarteak.	
<i>Euskararen elikadura</i>	9. Kulturgintza	8. Kulturgintza	5. Hedabideak	
	12. Hedabideak	9. Komunikabideak	6. Hizkuntza ondarea eta euskararen kalitatea.	
	13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak.	10. Teknologia berriak		
	11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea			

<sup>1</sup> 4. esparrua ADMINISTRAZIOA da. Esparru horren lanketa berezia egiten da ERABILERA PLANAREN bitartez. 5. eta 8. Esparruak GUNE EUSKALDUNENAK eta LIBURUGINTZA ez dira Udalaren eskumenekoak.

<sup>2</sup> 4. esparrua ADMINISTRAZIOA da. Esparru horren lanketa berezia egiten da ERABILERA PLANAREN bitartez.



## 1. Familia eta eskola: hurrei euskara transmititzea

Ahulguneak	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Gurasoen artean gaztelaniaz egiteko joera handia dago.</li><li>↓ Kalitatea gutxitu da.</li><li>↓ Atzerritarrei gaztelaniaz egiteko ohitura; hurrek ere berdin jokutzen dute ikasle atzerritarrekin.</li><li>↓ Euskarazko akatsak zuzentzeko ohiturarik ez (gaztelaniaz bai, ordea).</li><li>↓ Gurasoek ere balio gutxi euskarari, “badaukagulako”.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Motibazio landu: sentsibilizazioa landu. Gurasoei ohartarazi euren hizkuntza jarrerek haurrengan duten eraginaz eta euskara ama hizkuntza oinarri sendoa izatearen garrantziaz.</li><li>✓ Haur nagusiagoak txikiagoen eragile bihurtu (lidergoak erabili).</li><li>✓ Hizkuntzaren kalitateaz jabearazi gurasoak haurrengan eragiteko.</li><li>✓ Euskarazko jolas eta materialak gurasoen esku jarri.</li></ul>
<b>Helburu nagusia</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.</b></li><li>• <b>Ikastetxearen eta haren inguru hurbilaren arteko harremanak sustatzea.</b></li><li>• <b>Haur etorkinak euskarara hurbiltzeko neurriak sustatzea.</b></li></ul>	
<b>Helburu zehatzak</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Gurasoen arteko euskararen erabilera areagotzea.</li><li>• Gurasoak kontzientziaztea euren hizkuntza jarrerek norainoko eragina duten haurrengan.</li><li>• Eleaniztasunaren bidean hizkuntza ezberdinekin nola jokatu jakitea.</li><li>• Haurren hizkuntza kalitatea hobetzea.</li><li>• Etorkinak euskarara hurbiltzea.</li></ul>	



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017



Ekintza	Estrategia/EBPN ekintza
<p>Gurasoei euskara eta euskal kulturarekin lotutako produktuak ezagutaraztea eta euren eskura jartzea. Horien inguruko argibideak eta ikastaro erakargarriak eskaintzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>“Bularretik Mintzora” egitasmoa (Liburutegia).</i></li> <li>• <i>Kuku liburuxka haur jaioberrien gurasoei.</i></li> <li>• <i>“Alkarraz leitza” lan-taldea.</i></li> <li>• <i>Euskarazko Produktuen Katalogoa.</i></li> <li>• <i>Ludotekan kantatuz eta jolastuz gurasoak eta haurrak.</i></li> </ul>	Sentsibilizazioa/ekitaldiak antolatu/materiala banatu
	Eraginpekoak
	0-12 urte bitarteko hauren gurasoak
	Arduradunak
	Herri Biblioteka
	Gurasoak
	Alkarbide
Euskara Zerbitzua	
Xemein Aisialdi Taldea	
Lehentasuna	

Ekintza	Estrategia/EBPN ekintza
<p>Gurasoengan eragin euren hizkuntza ohiturak seme-alabengan duen eraginaz jabe daitezen.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>“Hurrekin bakarrik ez, zuen artean ere euskaraz” egitasmoa.</i></li> </ul>	Sentsibilizazioa/ekitaldiak antolatu/komunikazioa
	Eraginpekoak
	0-12 urte bitarteko hauren gurasoak
	Arduradunak



### Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Hitzaldi edo motibazio saioak.</i></li> <li>• <i>Informazio interesgarria helarazteko: komunikazio bideak sortu.</i></li> </ul>	<p>Guraso Elkartek Eskolak Mankomunitateko Prebentzio Saila</p> <p><b>Lehentasuna</b></p>
---	---

Ekintza	Estrategia/EBPN ekintza
<p>Seme-alabekiko hizkuntza-jokabideak landu gurasoekin batera, eta eleaniztasunaren onurak azaldu euskaratik abiatuta: hizkuntza kalitatea zaindu (akatsak zuzendu), beste hizkuntzen irakaskuntzarekin batera euskara indartzearen garrantziaz ohartaraztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Gurasoengana heltzeko komunikazio bideak identifikatu.</i></li> <li>• <i>Hitzaldiak edo esku-orriak prestatu.</i></li> <li>• <i>Eskolak inplikatu: hiztun euskaldun eleanitzak sortzeko proiektuan.</i></li> <li>• <i>Eskolekin batera euskara akatsak eta kalitatea zaindu.</i></li> </ul>	<p>Sentsibilizazioa/ekitaldiak antolatu/komunikazioa</p> <p><b>Eraginpekoak</b></p> <p>0-12 urte bitarteko haurren gurasoak</p> <p><b>Arduradunak</b></p> <p>Guraso Elkartek Eskolak Mankomunitateko Prebentzio Saila</p> <p><b>Lehentasuna</b></p>



## 2. Gazteak eta euskara

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Gaztelania modernoagotzat daukate. Herritik kanpo euskaraz egitean “kaxero” sentsazioa, eta gaztelaniaz egiteko joera.</li><li>↓ Teknologia berrietan eta sarean gaztelaniazko eskaintza zabalagoa daukate.</li><li>↓ Euskalgintzari garrantzi gutxi: garrantzirik ez zaio ematen. Pasotismoa handia da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Irudia eta sentsibilizazioa landu, prestigioa landu gazteen artean: euskaldun izatearen harrotasuna kanpora ere eramatea. “Kaxero” itxurarekin apurtu, harrotasunez jokatu.</li><li>✓ Euskara elkarte baten beharra: gazteen pasotismoa aktibatzea.</li><li>✓ Gazteen guneeetan euskararen aldeko mezuak. Tabernak (kontzientziatzea): euskal musikaren presentzia bermatuz.</li><li>✓ Hizkuntza ondarea, kalitatea eta gazte hizkera.</li><li>✓ Teknologia berrietan euskararen erabilera hobetu.</li></ul>
<b>Helburu nagusia</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Euskararen aldeko motibazioa, prestigioa eta proaktibotasuna zabaltzea gazteen artean.</b></li></ul>	
<b>Helburu zehatzak</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararen aldeko lanean inplikazioak bilatu, sentsibilizazioa.</li><li>• Euskara Taldea sortu eta gazteak inplikatu.</li><li>• Gazte hizkera indartu, eta hizkuntza kalitatea hobetu (“eztok eta baidon”).</li><li>• Teknologia berrietan euskararen erabilera sustatu gazteen artean.</li></ul>	





## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
<p>Euskara Taldea sortzea bultzatzea eta behar dituzten baliabideak ematea.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>“Eiñeink” izeneko Euskara Taldea sortzeko baldintzak erraztea eta bultzatzea; eta gazteak proiektu horretan inplikatzeko.</i></li><li>• <i>Topagunearekin harremanak izatea: programak ezagutu, laguntza teknikoa eskaini...</i></li></ul>	Sentsibilizazioa/baliabideak eskuragarri jarri/laguntza teknikoa
	Eraginpekoak
	Gazteak Herritarrak oro har
	Arduradunak
	Euskara Taldea Euskara Zerbitzua Gazte Asanblada Topagunea
	Lehentasuna
	Zehar-lerroa

Ekintza	Estrategia
<p>Prestigio lantzea: argumentarioa lantzea euskararen erabileraren aldeko sentsibilizazioa eta inplikazioa lortzeko, harrotasuna indartzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Argumentarioa lantzea sare sozialen bitartez.</i></li><li>• <i>Hitzaldiak Gazte Asanbladarekin batera (Kike Amonarriz...)</i></li></ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Gazteak
	Arduradunak
	Udala



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

	Gazte Asanblada
	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
Euskarazko baliabide teknologikoen zabalkundea egitea, bereziki gazteen artean. <ul style="list-style-type: none"><li>• Sare sozialen bitartez euskarazko baliabideak zabaldu.</li><li>• DBH eta Batxilergoko ikasleekin saioak antolatu.</li></ul>	Informazioa zabaltzea/ikastaroak antolatzea
	Eraginpekoak
	Gazteak
	Arduradunak
	Udala
	Gazte Asanblada
	Ikastetxeak
Lehentasuna	

Ekintza	Estrategia
Hizkuntza kalitatea zaindu eta gazte hizkera indartu. <ul style="list-style-type: none"><li>• Eztok eta bai don ikastaroa antolatu.</li></ul>	Sentsibilizazioa/ekitaldiak antolatzea
	Eraginpekoak
	Gazteak



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

<ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Gazte hizkera indartu, prestigiatzeko saioak: lehiaketak, berba xelebreak...</i></li><li>• <i>Hizkuntza kalitatea zaindu: akatsez ohartarazi.</i></li></ul>	Arduradunak
	Udala
	Gazte Asanblada
	AEK
	Lehentasuna



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017



### 3. Etorkinak eta helduen euskalduntzea

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Euskalduntze-alfabetatze eskolak ez dira nahikoa, berba egiteko aukerak zabaldu behar dira.</li><li>↓ Euskara eskolak Gizarte Zerbitzuen bidez zabalitzen dira lan egiten ez dutenentzako. Lanean dauden etorkinentzako eskaintza behar da.</li><li>↓ Gaztelania jakin behar dute egoitza-baimena lortzeko. Euskara ez.</li><li>↓ Bertakoek ez dute eurekin euskaraz egiten. Lehen hitza ez da euskaraz.</li><li>↓ Ezjakintasuna: zenbat denbora emango duten ez dakite askok.</li><li>↓ Lehentasuna ez da euskara askorentzat gaur egun (krisiaren eragina).</li><li>↓ Denbora falta.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Euren hizkuntzarekiko sentsibilizazioa erakutsi. Wolof eta euskararen arteko loturak indartu.</li><li>✓ Eskaintza egokitua: ordutegiak, alfabetatze maila, metodologiak, hizkuntza...</li><li>✓ Harrera Plana izan eta euskara bertan txertatu.</li><li>✓ Berbalagun bezalako ekimenak indartu, trukegunerako espazioak zabaldu.</li><li>✓ Lehen hitza euskaraz egiteko sentsibilizazioa landu.</li><li>✓ EPA eta Peñascal Fundazioa inplikatu.</li></ul>
<b>Helburu nagusia</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Euskararen gutxieneko transmisioa bermatu (oinarrizko komunikazioa), aldeko jarrerak sustatu.</b></li><li>• <b>Etorkinen eta bertakoen arteko harremanak euskararekin lotu.</b></li></ul>	



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

### Helburu zehatzak

- Bertakoek etorkinekin lehen hitza euskaraz egin dezaten.
- Euskara integrazioarekin lotu.
- Euskara ikasteko baliabideak erraztu (ekonomikoak, ordutegiak...)
- Berbalagun proiektua indartu.

Ekintza	Estrategia
Mintzapraktika egitasmoak indartu: Berbalagun egitasmoa indartu eta egokitu hartzailearen beharretara (euskara mailara).  <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Diru-laguntza egitasmoari.</i></li><li>• <i>Euskaldun zaharrak erakartzeko kanpainak egin.</i></li></ul>	Programa
	Eraginpekoak
	Etorkinak
	Euskaldun berriak
	Arduradunak
	AEK
	Euskara Zerbitzua
	Senegaldarren Elkarte
Lehentasuna	



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
<p>Euskara ikastaroen eskaintza egokitua bermatu: ordutegiak, ordu kopurua, edukiak, metodologia.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>AISA ikastaroak baliatu (diferentzia ordainduta).</i></li><li>● <i>Oinarrizko euskalduntzea doakoa bermatu, ikasleen konpromisoa idatziz jasoz.</i></li><li>● <i>Ordutegiak egokitu.</i></li><li>● <i>Metodologiak egokitzeko laguntza.</i></li><li>● <i>Gizarte Zerbitzuak baliatu, baita Senegaldarren Elkartearen ere zabalkundea egiteko.</i></li><li>● <i>Peñascal Fundazioa eta EPA inplikatu etorkinen euskalduntzean.</i></li></ul>	Ikastaroak
	Eraginpekoak
	Etorkinak
	Erdaldunak
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua
	AEK
	Berbalagun
	Senegaldarren Elkartearen
	Gizarte Zerbitzuak
Lehentasuna	

Ekintza	Estrategia
<p>Etorkinekin lehen hitza euskaraz izan dadin bultzatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Kanpaina bat abiatzea.</i></li><li>● <i>Sentsibilizazioa landu, mezuak zabalduz.</i></li></ul>	Sentsibilizazioa
	Eraginpekoak
	Herritarrak oro har
	Arduradunak



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

<ul style="list-style-type: none"><li>Identifikazio txartelak egin: pegatinak, pinak...</li></ul>	Euskara Zerbitzua
	Berbalagun
	Euskara ikasleak
	Senegaldarren Elkarte
	Lehentasuna



#### 4. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzugintza

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Hornitzaile gehienak erdaldunak.</li><li>↓ Alfabetatze maila baxua.</li><li>↓ Euskarazko baliabideak garestiagoak edo ez daude (kutxa erregistratzaileak eta abar).</li><li>↓ Modernizazio gutxi.</li><li>↓ Euskararen normalizazioan duten erantzukizunaz ez dira jabetzen. Euren erabilerak norainoko eragina duen.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Hornitzaileengan eragiteko moduak.</li><li>✓ Hizkuntza paisaian euskararen erabilera zuzena (akatsik gabea).</li><li>✓ Laguntza teknikoa: kartelak, itzulpenak...</li><li>✓ Sentsibilizazioa.</li><li>✓ Alfabetatze maila handitu.</li></ul>
<b>Helburu nagusia</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Euskararen presentzia hizkuntza paisaian %100 bermatu.</b></li><li>• <b>Merkatarien inplikazioa eta sentsibilizazioa handitu: bezeroen arreta euskaraz erabatekoa egin dezaten.</b></li></ul>	
<b>Helburu zehatzak</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Bertako bezeroei euskarazko zerbitzua %100 eman dezaten.</li><li>• Markina-Xemeingo establezimenduetan euskararen erabilera eta presentzia erabatekoa.</li></ul>	





## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
<p>Hizkuntza paisaia %100 euskaraz eta zuzena izan dadin neurriak sustatu.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Diru-laguntzak errotulu nagusia euskara hutsean jartzearren.</i></li><li>• <i>Laguntza teknikoa: kartelak eta oharrak itzultzeko.</i></li><li>• <i>Erdarazko oharren bat dagoenean, bisita egin establezimenduan eta Udalak eskaintzen duen laguntza gogoratu.</i></li></ul>	Estrategia
	Laguntza eskaini
	Eraginpekoak
	Herriko establezimenduak
	Arduradunak
	Hemen be bai merkatari elkarteak Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
<p>Hemen be bai merkatari elkartearekin elkarlana sustatu euskararen normalizazioan behar diren urratsak emateko.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Elkartearen jarduna euskalduntzeko laguntzak.</i></li><li>• <i>Elkarrekin beharrian komunak identifikatu eta elkarlanean aritu horiei aurre egiteko (ostalaritzako hornitzaileak...).</i></li></ul>	Estrategia
	Elkarlana
	Eraginpekoak
	Herriko establezimenduak
	Arduradunak
	Hemen be bai merkatari elkarteak Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
<p>Merkatarientzako interesgarriak izan daitezken euskarazko produktu eta baliabideak ezagutzera eman.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Baliabideak ezagutzera eman: aurkezpenak.</i></li><li>● <i>Euskeradebalde kanpaina baliatu eta erreferente bihurtu merkatarien artean.</i></li></ul>	Informazioa zabaldu
	Eraginpekoak
	Merkatariak
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
<p>Euskarazko trebakuntza hobetzeko ikastaro egokituak eskaini: ordutegi bereziak, ikastaro laburrak, euren lanera zuzendutakoak, oinarrizkoak...</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Ikastaroak antolatu AEKgaz batera: oinarrizko oharrak idazteko, aurrekontu eta fakturak idazteko, oinarrizko akatsak zuzentzeko...</i></li></ul>	Informazioa zabaldu
	Eraginpekoak
	Merkatariak
	Arduradunak
	Euskara Zerbitzua
	AEK
	Lehentasuna



## 5. Kulturgintza: kultur eta kirol elkarteak

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Merkatuan aukera gehiago erdaraz programatzeko.</li><li>↓ Euskaraz ez dakiten kideekin zelan jokatu?</li><li>↓ Nola heldu Markina-Xemeinen bizi diren kanpotarrei.</li><li>↓ Kirolak hizkuntzan duen eraginaz ez gara kontziente.</li><li>↓ Kirol hiztegi teknikoa falta da.</li><li>↓ Arazo handiena federazioetan dago; federazioek erdalduntzen dute elkarten jarduna hein handi batean.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Hasieratik entrenatzaileek euskararen erabileran duten eraginaz jabearaztea.</li><li>✓ Kirola euskara sustatzeko modua bihurtzea.</li><li>✓ Elkarten barruko jarduna euskaraz izateko laguntza eskaintzea (estatutuak, aktak...)</li><li>✓ Kirol federazioetan eragiteko bideak jorratzea.</li><li>✓ Euskarazko sorkuntza bultzatu (antzerkia, ekimenak...).</li></ul>
<b>Helburu nagusia</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Kultur eta kirol taldeen jarduna euskara hutsezkoa izatea.</b></li><li>• <b>Herrira begirako ekitaldien %100 euskaraz izan dadin bermatu.</b></li></ul>	
<b>Helburu zehatzak</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Elkarteetako barruko jarduna euskaraz izan dadin bultzatu.</li><li>• Elkarteak kontzientziatu eta euskararen erabileraren aldeko eragile estrategiko bihurtu.</li></ul>	



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
<p>Elkarteen jarduna euskaraz izateko laguntza teknikoa eskaini, euskara zuzena bermatu eta baliabideak eman.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Dokumentazio ereduak banatu: aktak, deiak, estatutuak...</i></li><li>• <i>Zuzentzeko eta itzultzeko laguntza teknikoa eskaini.</i></li><li>• <i>Jarraipena egin: kartelen, ekitaldien jarraipena.</i></li><li>• <i>Euren batzarretan euskara gehiago erabili dadin mezuak zabaldu.</i></li></ul>	Laguntza eskaini
	Eraginpekoak
	Elkartek
	Arduradunak
	Kultura batzordea
	Kirol batzordea
	Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
<p>Kultura eta kirol elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzetan (udalak) hizkuntza irizpideak txertatu eta berorien jarraipena egin.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Hizkuntza irizpideak berraztertu.</i></li><li>• <i>Hizkuntza irizpideak gogorarazi.</i></li><li>• <i>Hizkuntza irizpideen jarraipena egin: betetze maila neurtu.</i></li></ul>	Hizkuntza irizpideak
	Eraginpekoak
	Elkartek
	Arduradunak
	Kultura batzordea
	Udala
	Euskara Zerbitzua



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
<p>Federazioetan eragiteko moduak aztertu: kirol elkarteetan eragin Federazioetan eragin dezaten, edo modu koordinatu batean goi mailako erakundeetara bideratu kexa.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Kirol elkarteekin batera kanpaina bat abiatu federazioetan eragiteko.</i></li><li>● <i>Alkarbideren bitartez Federazioen jarduna euskalduntzeko neurriak bultzatu daitezzen ahalegindu.</i></li><li>● <i>Federazioetako hizkuntza jarduna arautzen duen Dekretua ezagutzera ematea.</i></li></ul>	Laguntza eskaini
	Eraginpekoak
	Kirol federazioak
	Arduradunak
	Kirol batzordea
	Kirol elkarteak
	Euskara Zerbitzua
	Lehentasuna



## 6. Hedabideak

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Alfabetatze maila txikiaren eragina.</li><li>↓ Euskarazkoa kalitate txikia (aurreiritzia).</li><li>↓ Prentsa idatziaren krisi orokorra. Sarearen indarra.</li><li>↓ Bertako zenbait astekaritan erdararen presentzia handia: Deiaiko "Hemendik".</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Diruz laguntzea.</li><li>✓ Toki publikoetan presentzia bermatzea: anbulatorioa, udal eraikinetan, Uhagon...</li><li>✓ Deiairi eskaera egin "Hemendik" astekarian euskararen presentzia nagusia izan dadin.</li></ul>
<b>Helburu nagusia</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Euskarazko hedabideen kontsumoa indartzea.</b></li></ul>	
<b>Helburu zehatzak</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hitza eta Garaian komunikabideen kontsumoa indartu.</li></ul>	



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
<p>Bertako euskara hutsezko komunikabideak ezagutzera ematea, hedatzea, prestigiatzea, diruz laguntzea.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Hitza eta Garaian Elkarteak diruz laguntzea.</i></li><li>● <i>Herritarren artean euskarazko hedabideen kontsumoa hedatzea.</i></li></ul>	Hedapena/diruz-laguntza
	Eraginpekoak
	Herritarrak oro har
	Arduradunak
	Hitza
	Garaian
	Udala
Lehentasuna	

Ekintza	Estrategia
<p>Sustapen lanean lagundu, Udaleko berri-emaile bihurtu euskara hutsezko komunikabideak.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Publizitatea eta berriez elikatu euskarazko hedabideak.</i></li><li>● <i>Udal aldizkaria euskara hutsean argitaratu.</i></li></ul>	Hedapena/diruz-laguntza
	Eraginpekoak
	Herritarrak oro har
	Arduradunak
	Hitza
	Garaian
	Euskara Zerbitzua



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

	Lehentasuna
--	-------------





## 7. Hizkuntza ondarea eta euskararen kalitatea

Ahulgunea	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Euskararen kalitatea okertzen ari da: gero eta akats gehiago.</li><li>↓ Hizkuntza ondarea galtzen ari da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Ez dok eta bai don ikastaroak antolatu: hitanoaren erabilera zabaltzeko.</li><li>✓ Akatsak zuzentzeko bideak zabaldu.</li><li>✓ “Berba xelebreak” moduko lehiaketak antolatu.</li><li>✓ Hizkuntza ondarean bildu eta zabaldu.</li></ul>
<b>Helburu nagusia</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Euskarazko hedabideen kontsumoa indartzea.</b></li></ul>	
<b>Helburu zehatzak</b>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hitza eta Garaian komunikabideen kontsumoa indartu.</li></ul>	



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017



Ekintza	Estrategia
<p>Hizkuntza ondarea bildu eta hedatu.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Ahotsak egitasmoa.</i></li><li>● <i>Berba xebleen lehiaketa.</i></li><li>● <i>Eskolekin elkarlanean, belaunaldien arteko harremana sustatuz.</i></li><li>● <i>Markinaldeko bebatagia bilduko duen webgunea sortu (ahal den neurrian Etxebarria eta Bolibarrekin elkarlanean)</i></li><li>● <i>Orain arte bildutakoa zabaldu sarearen bitartez: ipuinak, Rolloren liburua, Berba Xelebreak...</i></li><li>● <i>Toponimia lana.</i></li></ul>	Hedapena/diru-laguntza
	Eraginpekoak
	Herritarrak oro har
	Arduradunak
	Euskara Batzordea
	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
<p>Euskararen kalitateaz hausnartu eta herritarrak horretaz jabearazi. Haurrengan eragin, ohiko akatsak hedatu ez daitezen.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>● <i>Moskeo kanpaina.</i></li><li>● <i>Eskolekin eta AEKrekin elkarlanean.</i></li><li>● <i>Gurasoak sentsibilizatu.</i></li><li>● <i>Kartelen eta hizkuntza paisaiaren zuzentasuna zaindu.</i></li></ul>	Hedapena/diru-laguntza
	Eraginpekoak
	Herritarrak oro har
	Arduradunak
	Euskara Batzordea
	Lehentasuna



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
Bertako euskara erabiltzeko guneak sortu, Udalean, elkarteetan. Irizpideak adostu.  <ul style="list-style-type: none"><li>• <i>Bertako euskaraz idazteko irizpideak landu Udalean.</i></li></ul>	Hedapena/diru-laguntza
	Eraginpekoak
	Herritarrak oro har
	Arduradunak
	Euskara Batzordea
	Lehentasuna



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017



ZEHARLERROAK	
Ahulguneak	Proposamenak
<ul style="list-style-type: none"><li>↓ Udaleko barruko erabilera ez da hain euskalduna.</li><li>↓ Herriko gune estrategikoetan ez dago bermatuta: Eroski, Osakidetza...</li><li>↓ UEMAn ez egotea.</li><li>↓ Ordenantza egotea, baina ez aplikatzea.</li><li>↓ Hizkuntza ondarea galtzen ari da, bertako euskalkia galtzen.</li><li>↓ Kontzientzia galdu dugu; rol aktiboak falta dira: jendea aktibatzea da kontua.</li><li>↓ Konplexuen eragina handia da.</li><li>↓ Etorkinei ez diegu euskaraz egiten, guk gutxien dugu balioa.</li><li>↓ Helduen artean euskararen erabilera oso baxua.</li><li>↓ Krisi ekonomikoak eta murrizketek gehien euskarari eragin diete: euskalgintzari.</li><li>↓ Euskara Taldea falta da.</li><li>↓ Mezu negatiboak ez dira eraginkorrak.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>✓ Euskara Elkartearen sortzea.</li><li>✓ Herritarrak euskararen inguruan aktibatzeke bideak landu behar dira.</li><li>✓ UEMAn sartu behar da Udala.</li><li>✓ Diru-laguntzak ematea eragile estrategikoei: Hitza, AEK, Korrika...</li><li>✓ Udalaren barruko erabilera hobetzeko neurriak.</li><li>✓ Euskararen prestigioa landu: konplexuetan eragin.</li><li>✓ Bertako hizkuntza landu eta zabaldu.</li><li>✓ Etorkinei lehen berba euskaraz: euskaldunaren harrotasunean sinetsi.</li><li>✓ Mezu positiboak eta erakargarriak zabaldu.</li><li>✓ Argumentarioa landu.</li><li>✓ Inguruaren balioa sinestarazi: Lea-Artibairen identifikazioa (euskararen arnagunea).</li></ul>
Helburu zehatzak	
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ <b>Euskara Taldea sortzea.</b></li><li>▪ <b>Euskararen inguruan herritarrak aktibatzea: euskalduna izatea ez dela nahikoa jakinaraztea.</b></li><li>▪ <b>Prestigiatzea: euskaldunaren harrotasuna.</b></li><li>▪ <b>Gure balioa saltzea: arnagunea.</b></li></ul>	



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
Herritarrak aktibatzea: <ul style="list-style-type: none"><li>➡ Euskara Taldea sortzea.</li><li>➡ Argumentarioa lantzea eta zabaltzea.</li></ul>	Egiturak sortu
	Eraginpekoak
	Herritar oro
	Arduradunak
	Euskara Batzordea
	Lehentasuna

Ekintza	Estrategia
Euskara prestigiatzea: <ul style="list-style-type: none"><li>➡ Sariak eta aitortzak: euskararen erabileran urratsak eta ahaleginak saritu. Herritarrak zein eragile, merkatari eta abar.</li><li>➡ Argumentarioa lantzea.</li><li>➡ Gurasoengan eta gazteengan eragin bereziki: liderren erakargarritasuna baliatu.</li><li>➡</li></ul>	Prestigioa lantzea
	Eraginpekoak
	Herritar oro
	Arduradunak
	Euskara Batzordea
	Lehentasuna



## Markina-Xemeingo Euskararen Plan Estrategikoa 2013-2017

Ekintza	Estrategia
<p>Gure balioan sinestea:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>➡ Lea-Artibai Euskararen lana aitortzea eta jarraipena egitea. Proiektuan parte hartu.</li><li>➡ UEMAn sartzea.</li><li>➡ Udalaren jarduna herritarrentzako eredu izatea (euskarazko jarduna).</li></ul>	Ekitaldiak antolatu
	Eraginpekoak
	Herritar oro
	Arduradunak
	Aholku Batzordea
	Lehentasuna